

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**50/2020, uztailearen 15ekoa, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomiko larriaren aurrean Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeek beste diru-sarrera iturri bat izan dezaten. Horretarako, hainbat instalaziok tokiko jabari publikoa aprobetxatzeagatiko tasa bat ordain dezatela ezartzea sustatu nahi da, Arabako Foru Aldundiaren lankidetzarekin**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailearen 15ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

50/2020 Mozioa, uztailearen 15ekoa, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomiko larriaren aurrean Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeek beste diru-sarrera iturri bat izan dezaten. Horretarako, hainbat instalaziok tokiko jabari publikoa aprobetxatzeagatiko tasa bat ordain dezatela ezartzea sustatu nahi da, Arabako Foru Aldundiaren lankidetzarekin.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azterketa tekniko-juridiko bat egiteko, Arabako tokiko erakundeek energia elektrikoa eta hidrokarburoak garraiatzen dituzten instalazioei tasa bat ezartzeko aukerari buruz, tokiko jabari publikoa pribatiboki erabiltzeagatik edo aprobetxatzeagatik.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azterketa tekniko-juridiko hori bukatu ondoren tasa hori aplikatzeko aukera duten eta hala egitea eskatu duten tokiko erakundeekin lankidetzan aritzeko, azterketa ekonomiko bat egiteko, eta tasa hori arautzeko eta martxan jartzeko ordenantza bat egiteko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azterketa tekniko-juridiko hori 2021eko lehen hiruhilekoa bukatu baino lehen gauzatzeko.

4. Lurraldeko tokiko erakunde guztiei emango zaie mozio honen berri.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 15a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**